



Hazteko energia



Ezagutu “Hazteko energia”

Hazteko energia Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako guztiz dohainezkoa den hezkuntza-programa bat da, **eta elikadura orekatuaren, jarduera fisikoaren eta ingurumena zaintzearen bidez ohitura osasungarriak sustatzea du helburu.**

Proiektuak hezkuntza-ibilbide bat du, eskolan nahiz familian egiteko jarduera interaktiboek osatua.

Gure lana irakasleei eta familiei baliabideak eskaintzea da, gaia txiki-txikitatuz eta hezkuntza-etapa guztietan lantzeko.

- Eduki interaktiboak.
- Material bereziak eta hezkuntza-etapa bakoitzera egokituak.
- Abangoardia pedagogikoko edukiak.
- Ikaskuntza esanguratsu eta bizipenezkoaren aldeko apustua egiten duen metodologia berritzailea.


2012tik, 1,5 milioi haurrek parte hartu dute.

Materialak

eskuragarri
dauden materialak

euskaraz,
galegoz,
katalanez eta
gaztelaniaz

Hazteko energiaren materialak pedagogo adituek eta dietista-nutrizionistek garatu dituzte, hezkuntza-etapa bakoitzeko curriculum-helburuak betetzeko eta, horrela, ikasleengan oinarritzko gaitasunak sendotzeko material erabilgarria lortzeko.



Landutako gaiak

- Elikagaien jatorria.
- Elikagai eta mantenugai taldeak.
- Tokiko eta sasoiko produktua.
- Iraunkortasuna eta jardunbide arduratsuak.
- Nutrizio-etiketatzea.
- Ohitura osasungarriak (jarduera fisikoa, atsedena, higiena, hidratazioa).

0inarrizko gaitasunak

- Hizkuntza-komunikazioa.
- Ikasten ikastea.
- Gaitasun sozialak eta zibikoak.
- Gaitasun digitala.
- Ekimenaren zentzua eta espiritu ekintzailea.

"Hazteko energia" programak hezkuntza- etapa bakoitzari egokitutako baliabideak eskaintzen ditu



HAUR HEZKUNTZA (3 - 6 urte)



Irakaslearen gida didaktikoa

Bi ipuin eta esperientzia-jardueren proposamenak biltzen dituen hezkuntza-ibilbidea aurkezten dizu.




Klaserako jolasak

Elikagaien jatorria lantzen du eta istorioak kontatzen ditu bizitza osasungarria eta zoriontsua sustatzeko proiektuaren karta-jokoekin.

"Berrerabili eta murriztu, birziklatzeaz gain" ipuin interaktiboa

Familiak proiektuan inplikatzeko dituzten jarduerak interaktibo honekin, gelan hasitako lanarekin etxean jarraitzea ahalbidetzen duena.



LEHEN HEZKUNTZA (6 - 8 urte)



Irakaslearen gida didaktikoa

Proiektua ikasgelan nola gauzatu azaltzen du eta proposamen berritzaileekin ikasleen jarduerak osatzen ditu.



Ikasleen dosierrak

Bost unitate didaktiko, ikasgelan edo etxean egiteko komikiak eta jarduerak barne hartzen dituztenak.



LEHEN HEZKUNTZA (8 - 12 urte)



Irakaslearen gida didaktikoa

Elikadurari eta ohitura osasungarri eta arduratsuei buruz ikasteko bidea ikasleekin batera egitea laguntzen du.



Ikasleen dosierrak

Ikasleentzako hamar unitate didaktiko. Zazpi digitalizatu, jarduera interaktibo eta autozuzentzaileekin! Egin zure ikasleen jarraipena eta prestatu aro teknologikorako.

Orain linean!



"Tix eta Loyren misioa" joko interaktiboa


Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzari egokitutako online joko bat. Ikasleak animatzen ditu beren eta planetaren osasuna zaintzeko gakoak ezagutzen jarraitzea, **erronka dibertigarriak** gaindituz. Ondo pasatuko dute, **"Elikaduraren erruleta"** edo **"Bide osasuntsua"** bezalako galdera-jokoekin ikasiz! Errezeta bat ere ikasiko dute, behar dena erosi eta... sukaldean arituko dira!

Gehiago jakin nahi duzuzu?

Sartu www.escueladealimentacion.es/eu webgunean

Nola eman izena programan?

Hona hemen jarraibideak:



1

Sartu gure webgunean:
www.escueladealimentacion.es/eu




2

Joan "IZENA EMAN" atalera
eta eman izena parte hartuko
duzun eskoletan.



3

Hasi saioa eta ezagutu
proiektuaren materialak.



4

Ez ahaztu **hezuntza-baliabide**
interaktiboak aprobetxatzea! Animatu
ikasleak **Tix, Loy, Edda eta Kunekin**
jokoetan parte hartzera.

Zalantzarik baduzu, **jarri gurekin**
harremanetan. Pozik hartuko zaitugu.

Posta elektronikoa: info@escueladealimentacion.es
Telefona: **664 613 353** astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:00etara.